

## Xedea bideratzea

- Zer lortu nahi duzu?
- Zein da zure helburu nagusia?
- Nola definituko zenuke zure asmoa?
- Zer estrategia edo baliabide erabil ditzakezu?
- Zer ekintza gauzatu ditzakezu?
- Ba al dago zure helburua lortzea zailtzen edo oztopatzen duen zerbait?
- Nola zuzendu ditzakezu zure ideiak?
- Helburutik hurbiltzen edo aldentzen ari zara?

## Ideiak argitzea

- Nola birplanteatu dezakezu esandakoa?
- Zure ideia ulertgarria da?
- Zer esan nahi duzu horrekin?
- Beste hitz batzuekin esan dezakezu?
- Adibideekin azalduko zenuke?
- Analogiarik erabil dezakezu?
- Zer esan nahi duzu hori esaten duzunean?
- Zein da ideia nagusia?
- Zer esan nahi du hitz edo esamolde horrek?

## Garrantzitsua eta egokia izatea

- Pentsatzen ari zarena edo esan duzuna, hitz egiten ari garenarekin lotuta dago?
- Une egokia al da hitz egiteko?
- Kontuan izan al duzu elkarrizketaren gai nagusia?
- Zer ekarpen egin nahi duzu zehazki?
- Nola gehitu diezaiokezu balioa elkarrizketari?
- Zerk lagunduko liguke gaien aurrera egiten?
- Nola adieraz ditzakezu zure ideiak modu argian eta sinesgarrian?

## Logika erabiltzea eta bilatzea

- Zentzua al dauka osotasunean?
- Ba al dago koherentziarik ideien artean?
- Zein arrazoiketa prozesuren bidez iritsi zara ondorio honetara?
- Logikoa al da benetan diozuna?
- Nola aurkeztu ditzakezu zure ideiak egitura logiko bat jarrai dezan?

## Ziurtatzea

- Ziur zaude horrela dela?
- Nola jakin dezakegu hori egia dela?
- Nola egiaztatu dezakegu hori?
- Nola egiaztatu dezakegu egia den?
- Nola dakizu esaten ari zarena egia dela?

## Inferentziak egiaztatzea

- Zer ondorio atera dituzu?
- Nola iritsi zara ondorio horretara?
- Ba al dago beste ondorio posiblerik?
- Egongo al da informazio hori interpretatzeko beste modurik?
- Logikoa al da inferentzia hori? Zergatik?
- Zer ustek eramaten zaituzte ondorio horretara?
- Zer informazio ari zara erabiltzen ondorio horretara iristeko?

## Usteak zalantzan jartzea

- Zer ari zara jakintzat jotzen?
- Behar ez zenukeen zerbait suposatzen ari al zara?
- Zer ustek daramakizu ondorio horretara?
- Zer ari da suposatzen pertsona hori?
- Norbaitek posizio hau hartuko balu, zein izango lirateke inplikazioak?
- Zer iradokitzen ari da benetan?

## Ikuspuntuari buruz hausnartzea

- Zein ikuspuntutatik aztertu duzu gaia?
- Izango al da beste ikuspunturik edo egoera ikusteko zentzuzko beste modurik? Ala zurea da zentzuzko ikuspuntu bakarra?
- Zer egin dezakezu beste ikuspuntu batzuk ezagutzeko eta ulertzeko?
- Zer pentsatuko zenuke haren lekuan jarriko bazina? Zure posizioa aldatuko litzateke? Nola?

## Galdera bera zalantzan jartzea

- Zein galdera erantzun nahi duzu?
- Zure galdera argia da? Ba al du zentzurik?
- Nola birformulatuko zenuke galdera modu eraginkorragoan?
- Zergatik egiten duzu galdera hori?
- Baliagarria al da behar duzun informazioa eskuratzeko?

## Arrazoiak ematera animatzea

- Zergatik uste duzu hori?
- Zertan oinarritzen zara hori baieztatzeko?
- Nola justifikatuko zenuke zure iritzia?
- Zer arrazoi eman zenezake...?
- Eman dituzun arrazoiak nahikoak direla uste duzu?

## Informazioari buruz hausnartzea

- Zer informazio behar duzu?
- Zer informazio iturri kontsultatu behar dituzu?
- Nola bilduko duzu informazioa?
- Nahikoa da bildu duzun informazioa? Gehiago bildu beharko zenuke?
- Informazio hori garrantzitsua al da zure helbururako?
- Informazioa egiaztatu al duzu?
- Fidagarria al da iturria?

## Inplikazioei buruz hausnartzea

- Hori egitea edo ez egitea erabakitzen baduzu, zer gertatu daiteke?
- Zer ondorio izan zituen...?
- Hori egia balitz, zer gertatuko litzateke?
- Norbaitek hori egingo balu, zure ustez, zein izango lirateke ondorioak?
- Zer ondorio izan ditzake egoera edo ekintza horrek?